
OPARI
OTAS
UNA
DORI
KAFETEGIAN
2022/12/01
20:00ETAN
URDAIAZPIKOA
ETA POESIA 8
WWW.HKL.EUS

OPAROTASUNA

URDAIAZPIKOA ETA POESIA III

ABENDUAK 1, 2022
20:00 DORI KAFETEGIA

"Nahasmendu handi bat bizitzen ari gara...
Oparotasun bezala uler genezakeenaren amaiera bizi dugu.
Kosturik gabeko likideziarena, betirako erabilgarriak
iruditzen zitzaizkigun ura eta energia bezalako produktuena.
Demokraziarena bezalako ebidentzien amaiera ere bada.
Eta axolagabekeria mota baten amaiera ere bada.
Kulunka egite handi horren aurrean,
gure herrikideek antsia handiz erantzuten dute".

EMMANUEL MACRON

MOZTU URDAIAZPIKOA

(inspirazio iturria:
Little Richard - *Lucille*)

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ez dugu gosea nolanahikoa.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Premia ez dugu poetikoa.

Bukatu baino lehen oparotasuna,
urdaiazpiko ugari da nahi duguna.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Orain artekoa ez da nahikoa.

Urdaiazpiko xerrak asko eta jori,
horretarako toki aparta da Dori.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Tripako zuloa neurri handikoa.

Eta bukatu ezkero hor ditugun xerrak,
baliatuko ditugu Macronen izterrak.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Labanaren dantza hain teknikoan.

Kultur etxea ere oso gertu dago,
poemak gozatzeko zer hobekiago.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Usaina guretzat da erotikoa.

Poema eta pernila ez da izango dena,
lagunartea baita daukagun onena.

Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Ei, Mai! Moztu urdaiazpikoa!
Jan dugun azkena da aspaldikoa.



1. errazioa: ESKAS

2	Alda Merini
	Hedoi Etxarte
1	Itziar Ugarte Irizar
4	June Jordan
3	May Ayim
5	Xabier Montoia

1. Ingurua

2. Egia bera da beti

3. Iraultzaren beste muturrean

4. Gaur egun heroiak

5. Nora bilduko gara?

1.1. **Ingurua**

Nik ez dut hotzak heriotzaraino
ikara dezakeen bizilagunik
ez eta elikagaien bankuan
ilara egiten duenik

—orain, negua gori denean
eta gaua ezinen gordeleku—

ez dira nire lagun hurbilak
putak, beltzak, hiesa dutenak
15 urterekin ama direnak

—ezinbestez asko diost
munduan dudan tokiaz—

denen alde paratzen naiz
aukera dudanero
eguneroko joan isilean
inoren alboan eseri barik.

1.2. **Egia bera da beti**

Egia bera da beti
txikitzen zaituen
gizonen gaiztakeria
eta gorroto-santutegi bat eraikitzen dizuna
erdi irekita dagoen atearen atzean.
Baina pobreen maitasunak
edozein filosofiak baino distira handiagoa du.
Pobre batek dena ematen dizu
eta inoiz ez dizu leporatzen zure koldarkeria.

1.3. **Iraultzaren beste muturrean**

kafea edatea
asaldaturik
erailketez eta eguneroko heriotzez
solasean

itxaropena eta sumina
haziz doaz
“plastikoaren ordez jutea” ekintzetan

nikaraguako eta
tanzaniako kafea eta
hegoafrikako
fruiturik ez

ahal duguna
egiten dugu
uzten diguten
horretan

eta politikariak
iskanbiletan
korapilatzen direlarik
eta armaz hornituta
gizalegera eta ordenara
deitzen duten
bitartean

terroristatzat
erreko dituzte
erreboltari bakanak

eromenaren ertzean
pilatzen da heriotza

begirada katiluan
entseatu du mehatxua
areago okertzen bada
harriak
jaurtitzen
hasiko gara

1.4. **Gaur egun heroiak**


Gaur egun heroiak
sehaska bila ateratzen dira hotzera,
bilatzen dute
hasierentzako hilerri bat
(hilgarria da ironia
ikarak hartzen ditu haurrak
ortu santu isiotuko miaketan
zer
zer da
zer da gizatasuna berotan
besoak
loak bizirik daudela?)
Begiratu.
Bilatu bizitza
Bilatu bizirik gaudenon islak,
gure benetako arazoa:
dirua da dirdiratsu egiten gaituen eguzkia.

1.5. **Nora bilduko gara?**

Asko sufritzen dute
hiri honetako farolek egunsentian.
Hain goian egonda
ezin dute begirada
langile presatuengandik aldendu
eta besapean daramaten ogitartekoan
preso dagoen bihotz fresko hori
nahiko lukete askatu goizero.
Lehen zigarreten ke mingotsak
parkeko kurloiak mutu arazten ditu,
sabaipeetako uso betizuak beldurtu.
Lotan dirauten haurtxo samurrek
ez dakite begiak behin eta berriro
irekitzera kondenaturik daudela,
egunen jario moreak
betirako izoztu arte haien betazalak.

Hiri honetan katedralik ez bilatu.
Ez galdetu museoa non dagoen,
inork ez baitu
zure galdera xelebre hori ulertuko.
“Ongi etorri.
Botiken lurraldean zaude”.

Makinetako kafe indargean
lo egiten dugu
eta lantegien amets ugarietan
kristalak urratzen ditu gure besoak.
Arratoien eskeleto ñimiñoak
eztanda eta zarataz betetzen dira,
haien inguruan ugaritzen dira zizak.
Ibilgailuen abiadura hezeak
mila gauza itsuen urdindura
bizkortzen du denboraren lepoan.
Ez egon hemen udaberriaren zain.
Hemen beti dugu negua,
eta hiri erdiko kanposantua
gure baratzerik oparoena.
Hemen ere espaloiaren egia
ito egiten da gezurraren igeltsuaz.



2. errazioa: SOBERA

5	Damián Pedrosa
2	Ibon Zapiain
1	Idurre Eskisabel Larrañaga
4	Jule Goikoetxea
	Mari Luz Esteban
3	Pako Aristi

1. Zoriona

2. Manto florido, Atacaman

3. Umeen gelak

4. Kapitala

5. ZU gabe ez dago NI

2.1. **Zoriona**

Merkataritza zentroan
gertatu zait errebelazioa
kosmetika bio, organiko eta ez-kutsatzailean
espezializatutako saltoki
berri eta zen-ean
begi ondoko zimurrak lisatzeko seruma
edo kokospeko okelak irmotzeko ukendua
zein lehenetsi
erabaki ezinik nabilela,
orduantxe ailegatu zait memea,
whatsappez,
eta argi ikusi dut Argia:
Zoriona
(eskuin zein ezkerreko politikarien
agindu programatikoa,
aberrigintzaren zutabe berria)
ez dute gaztetasunak eta edertasunak ematen
ezta diruz eros daitezkeen
gainerako zirtzilkeriek ere.
Zoriona
ez baitu ezerk ematen.
Zoriona
nigan baitago.
Zoriona
neu bainaiz
ni
ni neu.

Arima berriturik
abiatu naiz mundura,
aingurak itzulikatuta,
biluzik:
ez dut hartu ez begietarako serumik
ez kokosperako ukendurik
titiak teinkatzeko olioa bakarrik
—baina hori *must* bat da—.

Errebelazioa lankideen
whatsapp taldera berbidali dut,
kuadrillakora,
eskolako amenera,
sindikatukora

eta Lucianari,
konketa ertza hobeto garbitzeko
mezuarekin batera.

Zoriona
opa diet.

2.2. **Manto florido, Atacaman**

Lehorra da oso
Kolore bakarreko paisaia amaiezina
Okrearen erakusleiho
Idortasunaren adibide infinitua.

Basa da, soiltasunaren basa
Mortua zinez, bizitzaren arrastorik gabea.

Euri printza ohartezina gure neurrietan
Zer dira ba lur harearen zimurretan ihesi doazen 15 ml?
Denboraz, arrakalak emankor bihurtuz
ernetzen du bizitza bero jasanezinak
lore horiak milaka
magenta lore gehiago, milioika
ezerezetik edertasunaren paisaia ikusgarrira.

Aste gutxiz irauteko,
argazkia deuseztatzeko,
baliteke sekula ez agertzeko berriz.
Oparotasuna iragankorra ote?

2.3. **Umeen gelak**

Umeen gelak denak jostailuz beteak daude.
Gure sukaldeak tresna, gailu, ontziteria
eta asmakizun xelebreez gainezka.
Armairuak arropaz eta oinetakoz josita.
Egongelak elektronikaz, oroigarriz
eta argazki inozoz itota.
Jendeak altzari berriak erosten ditu,
zaharrak ikusten aspertuta.
Etxea ez zaigu nahikoa, ganbara behar dugu,
garajea, elkarte gastronomikoa,
txabola eta txalupa.
Auto bat ez, hiru;
telebista bat ez, bana.
Erosi beharraren esklabo lehenak,
traste artean jakin-minari lekua jan diogu,
ilusioa ito zaigu,
eta umorearentzat ez dago aukerarik
beti zerbait ordaindu beharraren nekean.
Eta horri,
jakin-minik, ilusiorik eta umorerik gabeko bizitzari
progresoa deitu diogu.

2.4. **Kapitala**

Zakurkeria demasa da
kasurik onenean
bizitza (hirurogeigarrena)
dio sudur orrazkera deseginarekin
beltza ezpainetan
eta kartoi fineko beste ale bat
arazoa ez baita
ez kea ez ogia
mugikortasuna baino

Barakaldotik Basaurira
etxean izotz
tabernan zor
keinu bakoitzeko kobratzen da
ez badago dirurik
ez dago eskua
mingaina
esanahia
lekualdatzerik

hotz
mugiezina
soilik

pobrezia besterik
ekoizten ez duen
mekanismoa da

kapitala


biolentzia inpartziala
partziala baino hobea
izango balitz bezala

hotz mugiezina
demaseko zakurkeria
dio ke laino artean,
non da nire esku
mingain eta
esanahien
balio erantsia?

Izoztua,
sudur orrazkera deseginarekin.
Zorpetua,
beltza ezpainetan.

2.5. ZU **gabe ez dago** NI

Beharrik gabe ahal dugu zoriontasuna sentitu?
Gure beharrak aseta lasai bizi garela
pentsatu ahal dugu; baina nahikoa izan daiteke?
Beste batzuentzat yoga egiten,
"nirvana" maila lortu ondoren,
beharretik kanpo sentitzen dira.
Agian diru pilo batekin ere gauza bera,
premiak kentzea, lor daiteke.
Orduan, beharrak kentzea edo betetzea da inportanteena?
Ruben Dario poeta nikaraguarrak esaten zuen:
"Zoriontsua da zuhaitza sentsibilitate txikikoa delako,
eta are zoriontsuagoa harri gogorra, ez duelako sentitzen,
ez dagoelako bizitza kontzientea baino min handiagorik".
Falta zaigunaren kontzientzia hartzea
tragedia bihur daiteke, poetaren hitzetan. Era antzekoan,
daukagunaren kontzientziak zoriontasunera eramaten gaitu.
Zer falta zaigu, orduan, oparotasunerako?
Nola lortu, ez gauzen pilaketa,
baizik eta osotasun eta ongizate egoera?
Gu izaki soziala garenez —ZU gabe ez dago NI—,
besteekiko harreman onak, besteen maitasunak,
laguntzak, elkar ulertzeak...
gure zoriontasuna oparotasunera darama.



3. errazioa: NEURRIAN

5	Antonio Casado da Rocha
3	Aritz Branton
	Gabriela Mistral
2	Harkaitz Cano
4	Josu Landa
1	Miguel Hernandez

1. Gosea

2. Argi-zutoinean zintzilik

3. Bilioidunen dirua

4. Gutxi-asko duguna

5. Ghazal bat

3.1. **Gosea**

Hona gosea, oroit bere harat-honatak:
berunezko jornalen kapatazen goldea.
Odolaren prezioz jasotako soldatak,
ariman uztarria, sorbaldetan kolpea.

Behi mengelak zebiltzan gosearen eskutik,
emakume idorrak, ugatzak esne faltan,
masailezurrak gose, bizierak larrutik,
jangela eta gorputz ugariekin talkan.

Gose urte izan dira pobreentzat urteak.
Besteen gehigarri ziren beti ogiak.
Belez, kurrikez, otsoz, alakranez beteak,
gosearen otsodun artalde harrapariak.

Goseti naiz gudukan goseak sorturiko
ordain, marka, oroitze, zauri, arrakaletan:
zerrienen gisako zerrien jatorriko
hainbat sabel aseren kontrako borroketan.

Ezagutzen lehena izan ohi da gosea:
gose izatea da lehen ikaskizuna.
Urdaila abiapuntu den tokitik pasea,
sentimendu oldarra piztu izan diguna.

Goseak du pertsona labirintora biltzen,
bizitzak han du egoitza bakartasun ankerraz.
Itzultzen da piztia, bere sena berritzen,
bere hanka laztuez, bere isatsaz, herraz.

Gaizkian da jakitun, ezerezte denetan.
Gasak asmatzen ditu, hondagarriak jaurti,
apatxera itzuliz, uzkurtuz betortzetan,
bazkatzeko tokien aldera egin du jauzi.

Lagundu ni izaten: piztia izan ez nadin,
goseti, errabiatsu, betirako setioz.
Nik, famili abere, odolean behargin,
nire kantan bide den mundua dut desio.

3.2. **Argi-zutoinean zintzilik**

Kartoi arteko adiskide ardo merkeko,
markako zorrez zorriztatutako laguna:
Lepoa zut! Heldu da egiaren eguna!
Ez zenuen, bada, betiko zela usteko?

Gosearen ilaran lotsa gordin jateko
hamalau ordu lan eta lau intxaur trukeko,
langabezia saria saretzat duzuna,
entzun ongi: amaitu da oparotasuna.

Amarenean bizi da gaztea zahartuta;
luxu hau gutxi bailitzan, beste bat atzetik:
argia pizten da horma atximurkatuta...

Bizi izan zarete zuen aukeren gainetik.
Orain lez, oinak astintzen, ardurak ahaztuta,
bankuan gora, argi-zutoinean zintzilik.

3.3. **Bilioidunen dirua**

ez al da lagun asko dituena
bakardadea pairatzen duena?
munduak maite gaituela esan,
eta zozo zuri bakarra izan?

bilioidunek dirua dute, asko,
horientzat ez al da inoiz nahiko?
pixka batekin asetzen bagara,
hori da izatea aberatsa?

aldiz, kalitate kantitatea
baino gehiago dela esatea,
goserik ez dagoenaren hitzak,
sabelak beteko ez dituztenak.

geuretzat beti nahi badugu asko,
akaso ez dugu izango nahiko.

3.4. **Gutxi-asko duguna**

Aspaldian akitu omen zen historia.
Jainkoa berpiztu da, infernua modan da,
galopan faxismoa, ezkerra hilzorian,
sekula ez omen da helduko gure txanda.

Oso merke xuhurrean saltzen da memoria.
Iragarpenen kopa usteletik edanda,
fikzioan dago gure nahien alegoria,
non egon haiek esan, gure gogoa han da.

Nahi-behar genukeena, gutxi-asko duguna:
beharrezkoa faltan, gainezka eskastasuna,
pobrezia ugari, urri aberastasuna.

Lehian ibili ohi gara nork nor gehien izorra,
merezia ei dugu hartzen dugun zigorra,
shock post-traumatikoa bihurturik motorra.

3.5. **Ghazal bat** *

Oparotasuna, oparotasun, askorekin asko egin;
orain gutxi dagoenean esan ba, zenbatekin asko egin?


Odol beltza dugu hiri barnean, aldatu zaigu haizea
usoei kontrapasan nola, bai, ta gutxirekin asko egin.

Ongizatea, dirua, energia, gauza bera ez direla
baieztatu, eta ziurtasunik ezarekin asko egin.

Zenbat lagun, hainbat erpin: burua
burujabetzan jarrita Hernanin guztiokin asko egin.

Egun asko urteak ta nork berea. Antoine de Saint Exupéryk
gaur ehun hogeita bi. Hegan dezagun, ba, berarekin asko egin.

* Jatorriz, *ghazal* izeneko poemak Arabiako 7. mendean idatzi ziren, edo are lehenago. Beraz, bera dugu Europako eta Ekialde Hurbileko forma poetikorik zaharrena, sonetoa baino askoz zaharragoa. Formari dagokionez, ghazal bat bost distiko baino gehiagorekin osatzen da, elkarren arteko hari narratiborik gabe. Distiko bakoitzean, errima bakarra dago eta jarraian lelo bat (honetan, "-kin asko egin"). Lehenengo distikoan, errima eta leloa bi bertso-lerrotan agertu behar dira; gainontzekotan, bigarren bertso-lerroan bakarrik. Horrek sortzen du errezitatzailearen eta publikoaren arteko harremana, zeinaren arabera batzuetan publikoak aurreratu eta kantatu egiten duen distikoaren amaiera, bertsolaritzan gertatzen den moduan. Azken diptikoak poetaren izena aipatu ohi du, sinadura bailitzan. Persiako eta Arabiako kulturarekiko loturagatik, eta (Agha Shahid Ali adituaren arabera) "etengabeko herrimina edo maitemina" bere ohiko gaiak izateagatik, forma hori aukeratu dut poema baten bidez krisi, xenofobia eta desintegrazio aroan Europari buruzko gogoeta egiteko.



4. errazioa: NEURRIRIK GABE

2	Audre Lorde
4	Eba Zilbeti
1	Iñigo Astiz
3	Joxe Kruz Aranberri
	Mario Benedetti
5	Onintza Enbeita

1. Txinatar denda

2. Ekoizpena

3. Asteburua Jakan

4. Erakusleihoa

5. Gauzak

4.1. **Txinatar denda**

bere burua
apaintzen du
kapitalismo berantiarrak
txinatar dendaren
oparotasunean

igande arratsaldea da
eta erdigunean
itxita daude
gainerako saltokiak

atari aurrean
korrika dabil
dendariaren umea
apaletatik lehenago
hartutako baloiaren
koloreen atzetik

eskutan soil
ez darama
koxka batzuk janda
ogi barra
hutsa baizik

eta hala
barreiatzen du
plazer baldarrez
aro honen
albistea hirian

4.2. **Ekoizpena**

100.000 erlek erlauntz gotorra jorratzen dute
eta prest uzten ilargi betea eta hiru egunetara
guk
eztia mozten dugu.

Aizto beroek argizari-estalkiak ebakitzen dituzte
marko astun bakoitzean
aberastasun ilun eta polendua jariatzen da
karga-karga egindako orrazietatik.

Sadiq-ek argizarigailua betetzen du
Curtisek ardatza egokitzen.
Erleen antzeko aztarna gozoak dabiltza
aire berozko arrakala bakoitzean.

Ezti-etxearen kanpoaldean
erlamando gosetiak biltzen dira
ahotsa apal eta tinko
jarioa iragazten dugu barrez
eztiz hordi.

Iluntzearen aurrean
botila-ilara luzeak
etiketatuta eta zain.

Bihar gure ogibide izango dira
2 dolarrean bakoitza.

4.3. **Asteburua Jakan**

Asteburua Jakako etxean eman dugu,
Mercedesa kendu nion Pakori alabekin joateko
Norak eskiatzea maite baitu
Lidek snowborda
nik kafetegia eta txokolate beroa
eta hirurok termak.
Pako arratsaldean heldu zen bere Toyota handian ehizatik bueltan.
Nahiz guk atsegin ez piezak erakutsi zizkigun.
Harro zen.
Biarritzenean afaldu genuen bapo
giro polita izaten da Jakan, badakizu, euskalduna.
Hurrengo asteburuan Haroko etxera goaz
etorri nahi baduzu, parrillada bikaina, haragia soberan ziur
eta ardoak, eta whiskiak, eta purotzarrak
ardo negozioak, badakizu.
Etorri mesedez, behar zaitut.
Udarako,
Pakok bere herrira nahi izaten du, hango festa eta otorduak, eta…
Ni Benidormen hilabete gutxienez
alabek gustuko dute
niri on egiten dit
Mediterraneoak.
Noiz egingo dugu bidaia bat elkarrekin?
Niza? Venezia? Praga? Paris?

4.4. **Erakusleihoa**

Erakusleihora begiratu du
mota guztietako opilak daude:
croissantak,
euskal-opilak,
txokolatedun napolitanak,
suitzar boiloak,
katu mingainak,
donutak: azukredunak eta txokolatedunak,
zortziak,
entsaimadak,
kanutiloak,
bonbak: natazkoak eta kremaz beterikoak
ahoan eztanda eragiten duten horietakoak.
Eta badira opil handiagoak ere:
trufazko tartak,
ijito besoak,
milahostodunak,
pantxinetak,
sagar tartak,
tiramisuak,
sekula ikusi gabeko gozo imajinaezinak.

Umeak amari gonatik tira egin dio,
eskuinerantz mugiarazi,
beste toki baten bila,
halako oparotasunaren aurrean jateko eskatzea
zantarra irudituko balitzaio bezala.


4.5. **Gauzak**

Zientoka ditut beroki, zapata, praka, gona, soineko, jertse…
Armairuen barrunbeetan
etxe aldaketa batek erakutsi gaitzake hainbeste

Bota bi,
oparitu lau
apurtuak apurtu
nonahi arropa ugari.
Peccata minuta
familia batzuen kotxe kopurua,
etxe batzuen pantaila gaindosia ikusita.

Kapitalismoaren sindrome bi:
Erosteko beharra ezin eutsia
gauzenganako kariño etsia
gutxiagorekin ongi bizitzearen ideia, eri.

Hilko gaitu produkzioak
baina ez gaitu horrek kezkatzen
gauzak maite ditugu, gauzak.



5. errazioa: BIHARAMUNA

	Eva Perez-Pons
3	Gloria Fuertes
2	Igor Estankona
1	Jose Luis Otamendi
4	Leire Bilbao
5	Oihana Arana

1. Goizeko zenbaketak

2. Enpresariaren epemuga

3. Guztiak beldurtzen du

4. Game over

5. Beltza

5.1. **Goizeko zenbaketak**

aholku bat:
zenbatu eztabaidak eta musuak
amorruak okerrak ahanzturak
zenbatu bezperako hodei listuak
lineako busen eta
polizia patruilen konpasak
zenbatu bihotzerreak
zenbatu maitasun fantasiak
eta inori serio huts egiteko aukerak
zenbatu goizero gerezi arbolak
hildako presoak
eta galduan isuritako aldiak

aholku bat:
krisi handiaren hondokinen artean
bilatu estatistikek estaltzen dituzten
metalak astroen zapartak eta
zakurrek ere nahi ez lituzketenen hezurrak,
txarrenean beti izan neurriko baikor

—ez gara bakarrik bizi
begira egoten da jendea—

aholku bat:
mundu hau hustean
ahal bada ez abandonatu haurrik
zeharo behintzat,
ez eskutik laga gaueko izenak
egin kontu joan aurretik
zerbait ona uztea komeni dela

azken oharra:
behatzik edo haginen bat
gorputz edo itzal puskaren baten falta
sumatuz gero goizean
fenomeno geologikoak eta
egoera zibilaren aldaketak
jakingarri diren antzera,
frogatu bizi izandakoaren
zer portzentajek
jarraitzen duen josirik zeure baitan
zenbatekoa den beste inorenean,
akordatu milioika jenderen
lanak egina dela zure minutu bakoitza
eta saiatu frogatzen azkenik
zenbatean zaren jada
inoren jabetza eskubideez libre
izarren salda

5.2. **Enpresariaren epemuga**

"Kontuz arratoiekin"
esan zion aholkulariak
ikuskaria errebelatu zion
guruak batzargelan.

Beste gauza batzuk ere esan zizkion
baina batez ere ohartarazi
"kontuz arratoiekin".

Ez zegoen arduratuta alabaina
zereginak eginda zeuzkan
deitu zituen ordurako sindikalistak
suntsitu zituen banan-banan.

Lasai zegoen. Baina bitartean Txinan
zerebroa zorrozten dute:
kopiak prestatzen dituzte
arratoiaren urte beti oparoan.

5.3. **Guztiak beldurtzen du**

Beldurtzen du lorea goiz zimeltzeak.
Beldurtzen du asko maite izan eta besteek zu maitatzeak.
Beldurtzen du ume batek heldu aurpegia izateak,
beldurtzen du gauak...
arrazoirik gabe dardarka hasteak,
arrazoirik gabe irri egiteak asko beldurtzen du.
Beldurtzen du lorategietan bakea
koloretako bere belarriz agertzeak,
beldurtzen du maiatza izanda eguraldi ona egiteak,
beldurtzen du batez ere gertatu ahal izateak,
beldurtzen du osoa denak, litekeen horrek,
argi gehiegiak, koldarkeriak,
ezkontzen den jendeak, ekaitzak,
sortzen diren haizeak eta euriak.
Gauez inork egiten ez duen zaratak
—aulki hutsak kirrinka egiten du beti—,
beldurtzen du gaiztakeriak eta alaitasunak,
oinazeak, sugeak, itsasoak, liburuak,
beldurtzen du zoriontsu izateak, beldurtzen du suak,
izutzen du bakeak, zerbaiten susmopean beti,
beldurtzen du gariak oro, pobreek oro;
onena, aulkian ez jesartzea.

5.4. **Game over**

B-612 asteroidearen bila abiatu behar nuen nik ere
baina hemen jarraitzen dut oraindik.

Korrika joan izan naiz larrialdi irteeretara
zartatu egin zaizkit euspen-hormak
galdu egin ditut erabilera orriak
baina hemen jarraitzen dut oraindik.

Txatarraz bete zaizkit birikak
harren ordez balak aurkitu ditut sagarretan
bihotzen ordez haize-errotak
arnasa artifiziala behar dut nik ere.

Barra kode batekin irakurri naute
anforak hautsi zaizkit eskuetan
huts egin dit atrezzoak eta zaunka isiltasunak
eta hemen jarraitzen dut oraindik.

Ihes egiten saiatu naizenetan
nire musker eta tximeletek
atzetik segitu didate temati.
Animalia galduaren metafora naiz ni ere.

Horrelakoa da jokoa:
ez dago jarraitzea beste aukerarik.


5.5. **Beltza**

Etorkizun oro da beltza
gauak ere bai
eta begira zeinen ederrak diren.

Testu hauek
Hernanin irakurri ziren
jendaurrean
2022ko abenduaren 1ean
Urdaiazpikoa eta poesia III izeneko
ekitaldian

Testu hauetako batzuk itzulpenak dira,
eta eskerrak eman nahi dizkiegu
itzultzaileoi:

Aiora Enparantza Armentia, Ane Garcia Lopez,
Danele Sarriugarte, Josu Landa
eta Garazi Ugalde Pikabea



www.hkl.eus